



Vitoria-Gasteiz hiriak ur-kontsumoa murrizten jarraitzen du

AMVISAK hirian urak izan duen kontsumoari buruzko datu nagusiak aurkeztu ditu; aurtun ere, modu esanguratsuan murriztu da kontsumoa, bai zifra globalari dagokionez eta baita sektorez sektore izan duen kontsumoari dagokionez ere.

- 2013. urtean banaketa-sarean osotara sartu zen edateko uraren bolumena **%6 gutxiago izan zen, 2012koarekin alderatuta.**
- Gaur egungo etxeko kontsumoa, **pertsonako eta eguneko, 107,3 litrokoa** da; aurreko urtean, aldiz, 111 litrokoa izan zen, eta duela hamar urte AMVISA ura aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko kanpainak egiten hasi zenean, 2004an, 126 litrokoa izan zen.
- Etxeko kontsumoa ia auzo guztietan murriztu dela ikusten da, eta, horrekin batera, murriztu egin da kontsumitzaile handienaren eta txikienaren arteko tartea ere (hurrenez hurren, Mendizorrotza eta Pilar, lehenengoak 165 litro pertsonako eta eguneko eta bigarrenak, berriz, 97 litro).
- Etxeetako kontsumoaren atalean eta ur hotzari dagokionez, 2013an Vitoria-Gasteizko etxeen %54,5ek eguneko 200 litrotik beherako kontsumoa izan zuen; soilik duela lau urte, zenbateko hori %48,4koa zen.
- Beste sektore batzuei dagokionez, industria eta merkataritzako kontsumoa eta erakundeek dagokiena ere murriztu egin dira azken urtean, %7 eta %13 hurrenez hurren.

Altako ura (Hm³) eta hornidura (litro/bizt./egun) azken hamar urteetan



Ur gutxiago erabiliz, energia gutxiago kontsumituko duzu

AMVISAK ere parte hartu nahi izan du Uraren Mundu Eguneko ospakizunetan, kontsumoak murrizteko eta eraginkortasuna sustatzeko estrategia bateratua ura eta energia lotzearen garrantzia azpimarratuz; eta, horregatik, mezu argi bat helarazi nahi die gasteiztarrei: ur gutxiago erabiliz, energia gutxiago kontsumituko duzu.

Alde batetik, kontsumoen murrizketak hiriko uraren zikloaren kudeaketarekin lotutako energia-kontsumoa murriztea ekarri du, bai eta atmosferara berotegi-efektuko gas gutxiago igortzea ere. Eta, uraren eraginkortasunean eta aurrezpenean egin diren hobekuntzei esker, klima-aldaketaren aurkako borrokan lagundu du horrek, azken hamar urteotan 200.000 tona CO₂-ren igorpena saihestu baita.

Gainera, kontsumitzen dugun uraren zati handi bat ur beroa da, edo, beste modu batera esana, berotu beharra duen ur hotza; Vitoria-Gasteizko etxeetan, erabiltzen dugun ur beroaren ehunekoa, kontsumitutako ur guztiarekin alderatuta, aldatu egiten da neguko hilabeteetatik udakoetara, %33 baitagokie neguko eta %27, berriz, udako. Instalazio publikoetako, gizarte-etxeetako eta kiroldagietako kontsumoan ere, esanguratsua da ur beroaren kontsumoa, aldagelatan eta igerilekuetako ura berotzeko erabiltzen baita.

Abetxukoko oinezkoen pasabidean tarte berri bat ezarri da

Joan den martxoaren 31n, Abetxukoko oinezkoen pasabide berriaren luzapena ezarri zen; Zadorra ibaiaren ibilguaren sekzioa handitu egingo da horrela, eta, horri esker, ibaiaren gaitasun hidraulikoa areagotzeaz gain, segurtasuna ere handituko egingo da, Vitoria-Gasteiztik igarotzean ibaiak izan ditzakeen ur-handitzeen aurrean.

Lan hau Vitoria-Gasteizko Udalaren eta URA Ur Agentziaren arteko Esparru Hitzarmenean jasotako lehen tasuneko jarduketetako bat da; hitzarmen hori 2012ko urriaren 24an sinatu zuten, Zadorra ibaiak eta Vitoria-Gasteizko hegoaldeko ibaiak eragin ditzaketen uholdeen aurrean babesteko lanak gauzatzeko, 2013-2020 aldirian. Proiektua idazteaz eta pasabidearen diseinuaz arduratu da AMVISA. Lanen aurrekontua 843.112,50 €-koa izan da (BEZ gabe).



IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea:
info@amvisa-futura.org